



# ESPAZIO LIBREZ ZENBAIT BURUTAZIO

B. Bakaikoa

Euskal Herriak azken hiru hamarkada hauetan produktibismoaren ondorio gogorak jasan ditu. Ondorio hauetako bat, oso garrantzitsua dena, espazio libreen dimentsioa galtzea izan da. Hori dela eta, haziz joan diren herri eta hirietan jendea topatzeko eta elkarrekin egoteko espazioak ez dira kontutan hartu eta han non lur pixka bat zegoen tokian etxebizitzak edo lantokiak eraikitzeko erabili dira.

Era honetan, jendeak atsedenarako eta elkarrekin egoteko behar duen espazioa, bakoitzaren etxebizitzara mugatu da eta kaleak edo antzinan eraiki ziren plazak garrantzia galdu dute, pertsonen arteko harremanak kaltetan irtenez. Gure artean mendiak eta parke bat edo beste geratzen dira, baina eguneroko harremanak edukitzeko nahiko desgokiak dira, desplazamendua ez bait da batere erreza.

Zentzu honetan, Euskal Herriko herri edo hiriek topatzeko espazioa galdu dute eta beraz, komunikatzeko ahalmena murriztu egin da. Hau ez da bakarrik gure artean eman den fenomeno, baizik eta kapitalismoa hedatu den toki guztietan gauza bera jazo da, joera honen azken muturra muturra Estatu Batuetan egonez.

Esate baterako, Estatu Batuetako kasua benetan harrigarria da. Horko herriek, normalki, plazarik edo aurkilekurik ez dute. Bakarrik supermarket edo denda-zonetan topa daiteke jendea, etxe partikularretan ez bada behintzat, baina toki haietara jendea ez da joaten elkar komunikatzera, baizik eta helburu konkretu batera, hau da, erosketak egitera

edo saltzaileen informazio unilaterala jasotzea eta ez pentsa Jevons, Marshall edo antzeko ekonomilarien teoriak aplikaziorik dutenik. Beraz, ostatuak bakarrik geratzen dira bilduleku iriki gisa, berauen muga guztiekin.

Gure errealitate hurbilagora berriro itzuliz, beharrezkoa deritzat espazio libre hauek erreibindikatzea eta erabiltzen saiatzea. Topalekuak behar ditugu eta hori izan behar luke urbanizazioa planifikatzen dutenei egin diezaiekegun eskakizuna, bestela, pixkana-pixkana, pertsona abereengandik berezten duen karrakteristikak galtzen arituko bait gara, hau da, elkar komunikatzeko eitea.

## TB eta IRRATIA

Gizartea teknologizatuz joan den heinean, hau da, produktibismoak eremua irabazi duen eran, komunikatzeko modu berriak sortu dira: kazetak, irratia, telebista, e.a. Denboraren poderioan, pertsonak komunikatzeko zentroak aldatu egin dira eta informazio-hartzaileak ugaritu diren bezala, komunikazio-emaileak esku gutxiagotan geratzen ari dira, pertsonak kontrolatzeko bide eta modu egokiena bait da informazio-emaileak kontrolatuta egotea... Egoera honen aurrean, informazio-hartzailea, populazioaren gehiengoa izanez, erantzunik gabe geratzen da.

Hau da kapitalismoak lortu duena, informazio-emailea beti bat edo oso gutxi izatea berau kapitalaren eskuetan egotea, populazioaren gehiengoa desarmaturik agertuz. Popula-

zio guztiak minoria baten eskuetan dagoen informazioa jasoko du eta hau egia edo gezurra izango da, baina beti edo gehienetan, agintariek nahi dutena eta herria indefenso aurkituko da, marioneta moduan erabilia izan daitekeelarik, hemen ere Paulov-en teoriak guztiz aplikagarriak bait dira.

Arazo hau larria bihurtzen da informazioa jasotzen dutenek taldeka ez badaude edo jendea elkartzeko problemak bada. Ipar Ameriketara bezala. Izan ere, pertsona isolatu batek kanpotik ematen dioten informazio hartzen du, inongo aukerarik gabe erantzuteko eta, era berean, oso posibilitate gutxiek berria bezala dagoen beste batekin informazioaz eztabaidatzeko eta konfrontatzeko. Guzti hau ere, Europa zaharrea aplikagarria dela esan daiteke, nahiz Estatu Batuetako mailalara oraindik ez heldu.

Izan ere, gertatzen ari den hau bildurgarria da, gizartearen sustriak desegiten ari bait dira eta boterearen zerbitzari bihurtzeko posibilitateak ugaritzen. berehala uko egiten ez bazaio behintzen egoera honi. Zentzu honetan, Euskal Herria oraindik ba ditugu zenbait ohitura on; adibidez, nahiz jende askorentzat gure lagunarteko «basoerdiak hartzea» nefastotzat hartuta egon, nire ustez, guztiz aberasgarria dela edo izan daitekeela, zeren eta jendeak elkartzeko aukera ederra bait du eta bide batez egun osoan sartu dizkiguten berriak kritikatzeko une ederra gainera; beraz, komunikazioa multilateralala denean potentziatu egin behar litzateke, positiboa eta askatzailea bait da.

#### TABERNAK ETA PUB-**AK**

Benetan tamalgarria da gure antzinako tabernekin gertatzen ari dena. Hauek ere gizarte produktibista honek eraman ditu, jendea elkartzeko eta solasteko ziren biltoki hauek, nahiz horretarako drogaren kontsumoa egin. Solasaldi hauek zenbat eta zenbat gauza ez ote zen kontatuko edo kritikatu; Txirrita lekuko; edonolako istoriak edo ipuinak ikas zitezkeen; nolabait esateko, eta barka droga guztien aurka daudenak, tabernak ere gure kultura transmititzeko eta jendeen arteko harremanak hedatzeko izan dira.

Gaurregun, aldiz, mota hauetako taberna gehienak desagertu dira eta beraien ordeaz PUB-ak ireki dira —Bretania Haundian daudenekin ez dute inongo antzarik—, non komunikazio guztia desagertu den. Pub batean aukera gutxi daude

elkarrizketa normal bat izateko, izugarriko zarata egoten bait da elkar entzuteko. Beraz, moda berriko edaritegi hauek ere informazioa kasu honetan musika dezibelio pilo batekin eta honek belarrietarako dakarren arriskuarekin unilaterala da, hau da, bezeroak paper pasiboa jokatzen du eta multinazionalen musika belarrietetik sartzen zaigu, ia-ia lehertu arte. Haatik, tabernak espazio galduak dira, oraingoz behintzat, eta beraien erreibindikazioa praktikan ezarri behar genuke.

Espekulazio eta produktibismoa hainbeste garatu den garai honetan, badirudi utopikoa izan daitekeela hiri edo herri erdian espazio eta biltoki libreak eskatzea, baina posiblea eta behar-beharrezkoa zaigun lorpena da, pertsona libreak izatea nahi badugu behintzat. Bestela, pertsonak manipulatuak izateko bitartekoak jartzen ariko bait ginateke, eta sozialismo librea ezinezkoa izango litzateke.

Ez da pentsatu behar parke edo mendiekin nahikoa dugunik. Hauek ere erreibindikatu eta ondo gorde behar ditugu. Baina auzo bakoitzeko plaza eta bildulekuen premia larriagoa dela deritzat, bestela, pertsonen baitan dagoen elkar komunikatzeko beharra desegin egingo bait zaigu eta hau da, azken finean, kapitalismoari eusten diotenen nahi dutena: pertsonak suntsitu.

Zentzu honetan, txalogarria da Oorereta/Errenteriako aurreko udalak eraman zuen plangintza eta politika, hau da, «galduta» zeuden espazio libreak herriaren zerbitzuan pagatzea. Urrats bat besterik ez da izan, baina guztiz garrantzitsua eta horregatik ugaritu joan behar luteke, ea honela jendea gehiago elkartzeko den milaka gauza eta gertaera kontatzeko, musika entzuteko —ez multinazionalena noski—, gauzak kritikatzeko: azken finean, libreagoak izateko eta hala sentitzeko.

Gogoratu behar ditugu grekoarrak. Hauen historian eza-gutu den demokrazia ederrena polisietako plazetan praktikatzen zen, bertan hartzen bait ziren erabaki politiko garrantzianak. Sobiet Batasuneko Kronstadt ugarte heroiko hartan ere, bertako populazio guztia —Alderdi Komunistokoak barne— Petrogradoko agintarien aurka altxatu eta eten zuten Anklara enparantza ospetsuan ematen ziren eztabaida eta erabaki politikoak, benetako demokrazia eta iraultza ezagutu zirelarik.